




Etxebizitzaren salmenta %20,8 handitu zen abuztuan

Etxebizitzaren salmenta EAEn

Urte bakoitzeko urtariletik abuztura bitartean




Iturria: INE.

Abuztuan, etxebizitzaren salmentak %20,8 egin zuen gora EAEn, aurreko urtearen aldean. Lehen zortzi hilabeteetako datu metatua saldutako 16.600 etxebizitzetatik igaro da, 2007tik, hots, Atzeraldi Handia eragin zuen higieziaren krisia piztu aurretik, izandako kopururik handiena baita.

Etxebizitzaren gaineko hipotekak %18,3 igo ziren

Etxebizitzaren gaineko hipotekak

Urte bakoitzeko urtariletik abuztura bitartean




Iturria: INE.

Etxebizitzaren salmentaren igoerari lotuta, **abuztuan sinatu ziren etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua %18,3 hazi zen aurreko urtearen aldean.** Aurtengo lehen zortzi hilabeteetan 15.600 hipoteka baino gehiago formalizatu ziren, azken hamaka urteetako kopururik handiena, baina aurreko garaietatik urrun dago kopuru hori.



Industriako prezioek apaltzen jarraitzen dute

Industriako prezioen indizea
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Irailean, IPRIk %20,9ko urte arteko tasa jaso zuen, abuztuko baino lau hamarren txikiagoa. Hori horrela izanda, maiatzean hasi zen moderazio leunarekin jarraitzen du, hileko horretan %29,6ko tasara iritsi baitzen. Energiaren prezioen igoera tasa (%47,7) urrun dago ekipamenduko ondasunek izan duten garestitzetik (%3,6).

Langabezia tasa %8,3ra jaitsi zen, INEren arabera

EAEko langabezia tasa
Ehunekoak



Iturria: INE.

BAiren arabera, langabezia tasa puntu erdi bat jaitsi da EAEn hirugarren hiruhilekoan, %8,3ra arte. Beheranzko bilakaera hori Eustaten BJAk joan den astean iragarritakoaren oso antzekoa da, kasu horretan sei hamarren jaitsi baita %7,9ra arte. INEren inkestan, gizonen langabezia tasa %8,2 da, eta emakumeena, berriaz, %8,4.